

AHALDUN NAGUSIAREN KABINETEKO BURUA

Igor Camaño Ortuzar

Santurtzin jaio zen, 1973an.

Prestakuntza akademikoa

EHUko Komunikazio Zientzietan lizentziatua.

Ibilbide profesionala:

Haren ibilbide profesionala, 21 urtez, komunikabide pribatuekin lotuta egon da, batez ere, prentsarekin. Herri Administrazioan lan egin aurretik, zuzendari adjuntua izan zen DEIA egunkarian, non Politika Ataleko buru, Athleticen sinadura eta Ezkerraldeko ordezkari ere jardun baitzuen. Zenbait lan argitaratu ditu kirolaren prentsa espezializatuan eta zenbait igandekaritan; horrez gainera, lankidetzan aritu da kultur eta kirol komunikazio-erakunde batzuetako kabinetean.

2013ko maiatzetik 2015eko maiatzera, aholkulari izan da aurreko ahaldun nagusiari Laguntzeko Unitatean.

Euskara eta ingelesa ikasten ari da.

KANPO EKINTZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Joseba Koldo Atxutegi Ajuria

Bilbon jaio zen, 1974ko otsailaren 18an.

Prestakuntza akademikoa:

- 1992-1997 Zuzenbidean lizentziatua, Deustuko Unibertsitatean.
- 1992-1997 Ekonomian diplomaduna, Deustuko Unibertsitatean.

Prestakuntza osagarria:

- EUSKADI, 1998 Praktika Juridikoaren Eskola, Bizkaiko Jaurreriko Abokatuen Bazkunaren Praktika Juridikoaren Eskolak emandako espezializazioa.
- TXILE, 2002 Eskualdeen integrazio eta lankidetzako prozesuei buruzko diploma. Txileko Unibertsitateko Nazioarteko Azterketetarako Institutua
- TXILE, 2004-2005 Executive MBA ESE-IESE, Andeetako Unibertsitatea

Ibilbide profesionala:

Sektore pribatuan:

EUSKADI Biolan Biosensor Company
2009ko ekaina: CMO & Sales Manager-ren kide ekintzailea
Gaur egun

Jarduerak: Biosentsoreen eta enpresaren amaierako produktuaren ekoizpena koordinatzea; hornitzaile eta bezeroekin negoziatzea. Nazio eta nazioarte mailako garapen komertzialaren arduradun nagusia da; merkataritzako akordioak ixten ditu banatzaileekin eta merkataritzako ordezkariak irekitzen ditu atzerriko herrialdeetan, hala nola, Indonesia, Txile, Ekuador eta Marokon. Enpresa horrek bere fakturazioaren % 70 baino gehiago esportatzen du.

TXILE Surlat enpresa Esne-sektorea
2001eko ekaina – Enpresaren Zuzendaritzako kidea
2003ko martxoa

Jarduerak: Parte hartzea Surlat enpresaren Administrazio Kontseiluan; enpresa hori Iparlat eta Surlat Industrial Txileko enpresaren arteko joint venture bat da. Enpresak garatuko dituen politiken diseinua eta jarraipena.

Sektore publikoa (kargu publikoak)

EUSKADI Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia - Eusko Jaurlaritzako Lehendakariitza
2006ko azaroa- Kanpo Harremanetarako aholkularia, Eusko Jaurlaritzaren Latinoamerikako Ordezkaritzen koordinatzailea.
2009ko maiatza

Jarduerak: Eusko Jaurlaritzak Latinoamerikan dituen Ordezkaritzen enpresa, erakunde eta lankidetzako arloetako politiken koordinazioa eta garapena, hain zuzen ere, Argentinan, Txilen, Mexikon, Kolonbian eta herrialde mugakideetan. Harremanak erakunde aldeaniztunekin, esaterako, B.I.D., P.N.U.D., O.E.A., C.E.P.A.L. eta C.A.

TXILE Euskadiko Ordezkaritza Txilen
2003ko apirila- Ordezkarria:
2006ko azaroa

Jarduerak: Euskadiko industria-sektoreen ekonomia eta enpresak sustatzea, Euskadiko sektore anitzek Txilen dituzten interesak sustatzea eta alde biko eta hiruko kooperazioko programak garatzea; Euskadiko lankidetzaren arduradun nagusia Txilen; harremanak erakunde aldeaniztunekin, eta, azkenik, Txileko euskal erakundeak eta diaspora koordinatzea. Eusko Jaurlaritzaren arduradun nagusia Txilen.

TXILEFundación Vasco Chilena para el Desarrollo.
2000ko martxoa- Kudeatzaile nagusia
2003ko martxoa

Jarduerak: Fundación Vasco Chilena izeneko fundazioaren zuzendari nagusia. Kargu horretan funtzio hauek bete ditu: erakunde-lanak (gubernuen arteko harremanak eta Eusko Jaurlaritzako kideen bisitak Txilera), enpresa arloko lanak (euskal enpresak Txilen ezarri eta merkaturatzea, negozio-bilerak eta merkataritzako misioak, zuzenak nahiz alderantzizkoak), eta garapenerako lankidetzako eta kultur arloko lanak koordinatzea. Horretaz gain, aurrekontuaren kontrola egin du eta bulegoaren arduradun nagusia izan da.

MEXIKO Instituto Vasco Mexicano para el Desarrollo.
1998ko urria - Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak emandako Unesco beka
1999ko abendua Laguntzaile teknikoa
Jarduerak: Sektoreetako txostenak egitea, herrialde horretan ezarri eta merkaturatu nahi duten euskal enpresentzat.

Esperientzia GKEen
TXILE, Asociación para la Formación y Desarrollo FORYDES
2000ko martxoa- Idazkari exekutiboa
2003ko martxoa
Jarduerak: Txileko FORYDES GKEren bost lankidetzaproiektu kudeatzea, eta dirua eskatzea nazio nahiz nazioarteko funtsei, beste erakunde batzuekin egindako partzuergoen bidez.

MEXIKO Centro de Desarrollo Humano y Técnico
1999ko urtarrila- Aholkulari teknikoa
1999ko abendua
Jarduerak: Euskadi eta Mexikoren arteko lankidetzaproiektuen finantzazioa, eta proiektu horien ebaluazioa eta ikuskaritza. Euskadi, Espainia, Mexiko eta Europako erakundeen arteko finantzazioa.

HIZKUNTZAK:

- EUSKARA- Maila altua ahoz eta idatziz.
- INGELESA - Maila altua ahoz eta idatziz.

BIZKAIKO BEHATOKIAREN ZUZENDARI NAGUSIA

Maitane Leizaola Zulueta

Bilbon jaio zen, 1976ko urriaren 15ean.

Prestakuntza akademikoa

Zuzenbide Juridiko Ekonomikoan lizentziatua, Deustuko Unibertsitatean.

Ibilbide profesionala

Bere lan-ibilbidea abokatu lanetan hasi zen. Zuzenbide Zibilaren eta Kontratu Zuzenbidearen arloan letratu espezialista gisa lan egin zuen 4 urtez; horren ondoren, banku sektorean hasi zen, hain zuzen ere, ETEen merkataritza arloan eta partikularren finantza aholkularitzan. Lanpostu horretan ari zela, foru esparruan politikako ardurak hartzeko eszedentzia eskatu zuen.

2007tik 2011ra, Kultura Saileko Gazteriaren zuzendari nagusia izan zen.

2011tik 2011ra, Kultura Saileko Kirolen eta Gazteriaren zuzendari nagusia izan zen.

Gaur egun, Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusiaren burua da. Erakunde horrek arlo hauen ardura du: Foru Gobernuaren arlo ezberdinetatik garatzen diren plan eta ekintzen jarraipena eta barruko eta kanpoko kontrola; erakundeak herritarrekin dituen harremanak eta herritarrek erakundearen jardunean duten parte-hartzea; Bizkaiko gobernurako eta lurralderako interesgarriak izan daitezkeen gaien azterketa eta Gobernuaren arlo guztiek ezarri behar dituzten politikak koordinatu eta zuzentzea, bereziki gazteriaren arlokoak.

Euskaraz (4. HE) eta ingelesez (FCE) hitz egin eta idazten du.

KOMUNIKAZIORAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Estibaliz Ortiz Tinoco

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzietan lizentziatua (UPV-EHU - 1996)

Prestakuntza akademikoa

Unibertsitateko ikasketetan zehar hainbat komunikabidetan praktikak egin ondoren, 1996ko ekainean, Radio Euskadiko programen sailean hasi zen lanean, non produkzio- eta esatari-lanak egin baitzituen.

Ibilbide profesionala

2006ko maiatzean, Radio Euskadiko «prime time»ko irrati-saioen arduradun izendatu zuten. Tarte horretan, albistegiak eta entzule gehien dituzten goizeko magazinak ematen dira. Modu aktiboan lagundu zuen irratirako formatu eta eduki berrien diseinuan, irrati publikoaren entzuleen kopurua modu esponenzialean hazi zen garai batean.

2008ko urtarrilean, Radio Euskadiko zuzendari izendatu zuten. Haren ardurapekoak ziren EITBko irrati horretako teknikari, administrari eta idazleen kudeaketa eta informazioa emateko eta programazioa egiteko irizpideak.

2009ko abuztuan, Grupo Noticias taldeko Radio Onda irrati zuzendaritza hartu zuen.

Estibaliz Ortizek kargua hartu bezain laster, komunikabidea erabat berritu zen, edukiei zein programei dagokienez; gainera, emanaldietarako ordutegia zabaldu egin zen, eguneko 24 orduak osatu arte, astelehenetik igandera arte, eta Herri Irratia kateko profesionalak zein irratiak hartu zituen bere barruan. Haren eskumenekoak ziren, orobat, irrati langileen kudeaketa eta finantza-planak.

Azkenik, 2015eko uztaillean, Bizkaiko Foru Aldundiko Komunikaziorako zuzendari nagusi izendatu zuten.

Beste datu interesgarri batzuk

Lehen adierazitako zuzendaritza-lanez gainera, azken urteetan, zenbait ikastaro eman ditu (prestakuntza estrategikoa, komunikabideekiko harremana eta lidergoa lantaldeetan), non ikasleekin partekatu baitu lantaldeen zuzendaritzan eta aurrekontuen kudeaketan hartutako esperientzia.

FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARI NAGUSIA

Cesar González de Heredia Maruri

Bilbon jaio zen 1957ko otsailaren 15ean.

Prestakuntza akademikoa:

Zuzenbidean lizentziatua, Deustuko Unibertsitatean.

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Giza Baliabideen Kudeaketako Postgradua.

Ibilbide profesionala

Eusko Jaurlaritzaren karrerako funtzionarioa, A2 Zuzenbidean Lizentziaduna

Toki-Administrazioko funtzionarioentzako postu desberdinetan aritu da, IVAP-ean, Toki Administrazioaren Zuzendaritzan eta Eusko Jaurlaritzaren (1984-2007ren) Funtzio Publikoko Zuzendaritzan.

(1994-2000) Deusto-ko Unibertsitateko Zuzendaritza Administratiboko irakaslea.

(1988-1991) ALAIE-ako Zuzendaritza Irakaslea (Itzultzaile-Eskola juridikoko administratiboak)

Ikastaro desberdineko ematea (Deustoko Unibertsitateko Foru eta Erkidegoko Master a) Giza Baliabideak (INAP, IVAP)

Kargu publikoa: Bizkaiko Foru-Aldundiko Funtzio Publikoko Zuzendaria (2007-)

Hizkuntzak: Euskara. Frantsesa. Hitz eginda eta idatzita

ZERBITZUEN, UDAL HARREMANEN ETA LARRIALDIEZ ZUZENDARI NAGUSIA

Jesús M^a García Larragan

Bilbon jaio zen 1958ko uztailaren 10ean.

Prestakuntza akademikoa:

Merkataritza-nabigazioko kapitaina

Ibilbide profesionala

NABIGAZIOA:

76/06/25etik 86/05/17ra, ontzi-konpainia hauetan:

- Naviera Continental S.A.
- Naviera Vizcaina, S.A.
- Naviera Garcia Miñaur, S.A.
- Cia Vapor Carmen
- Transportes Navales, S.A.
- Bilbao Shipping S.A.

Bilboko Udaleko Funtzionarioa:

- 87/03/26an Bilboko Udalean hasi zen karrerako funtzionario gisa, suhiltzaile plazan.
- 13/12/02 Esku-hartzearen Planifikazio eta Analisisiko Sekzioko burua
- 10/12/03 Zirkulazio eta Garraio Saileko zuzendariordea

Zuzendaritza Karguak Bilboko UDALEAN:

- 09/07/07 Hezkuntza Saileko zuzendaria
- 08/02/28 Hezkuntza Saileko erantzukizun bereziko zuzendaria.

Bilboko Udaleko Funtzionarioa:

- 17/07/03 Karrerako funtzionarioa, behin-behineko atxikipeneko goi mailako teknikari gisa.

Bizkaiko Foru Aldundia

- 15/07/14 Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien zuzendari nagusi izendatzea.

KOORDINAZIOKO ZUZENDARI NAGUSI ETA MODERNIZAZIO, GOBERNAMENDU ON ETA GARDENTASUNERAKO KABINETEKO BURUA

Ibon Oñate Zamalloa

Amorebietan jaio zen, 1976ko otsailaren 12an.

Prestakuntza akademikoa:

Produktu elektronikoen garapeneko eta programazioko goi teknikaria (1996-1999).

Industria ingeniari-tza teknikoko ikasketak (elektronika) Vitoria-Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan (1993-1996).

Lanbide-esperientzia:

Bere lan-ibilbidea enpresan hasi zen, hasieran, programatzaile, interneteko analista eta WEB teknologien irakasle gisa (1999-2001); geroago, proiektuen zuzendari eta administrazio publikoen iparraldeko zonako zuzendari izan zen (2001-2005). Exact Software Basque Country enpresaren kide sortzailea eta zuzendari nagusia (2005-2008); Deusto Solutions enpresaren kide sortzailea eta kontseilari eskuordea (2005-2009); I.T Deusto enpresaren administrazio publikoen negozio-unitatearen iparraldeko zonako zuzendaria (2008-2009).

Sektore publikoan esperientzia zabala du; BiscayTIK fundazioan zuzendari nagusi aritu da 2009tik 2013ra, eta dedikazio eskusiboa izan du kargu horretan. 2013tik 2015era arte, Administrazioaren, Zerbitzuen eta Berrikuntza Publikoaren zuzendari nagusia izan da, eta administrazio kontseilu eta zuzendaritza batzordeetako kidea izan da.

- Lantik-eko presidenteordea
- BiscayTik Fundazioko Patronatuko kidea
- Zugastel-eko presidenteordea

Gaur egun, Koordinazioko zuzendari nagusi eta Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabineteko burua da; horretaz gain, Gordailu Zabalaren Partzuergo zuzendaritza-batzordeko presidentea, Aparkabisako idazkaria, Basalan-eko kontseilaria, Euskalduna Jauregiko kontseilaria, Lantik-eko presidenteordea, BiscayTIK Fundazioaren presidenteordea eta Zugastel-eko presidenteordea.

Euskaraz gaztelaniaz eta ingelesez (maila altua) eta Brasilgo portugaleraz (oinarrizko maila) hitz egin eta idazten du.

GOBERNAMENDU ONERAKO ETA GARDENTASUNERAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Nerea Martiartu Crespo

Prestakuntza akademikoa:

Zuzenbideko Lizentziaduna. Ekonomia Espezialitatean Diplomaduna (Deustuko Unibertsitatea)

Master In Business Administration (MBA). Estrategia Eta Finantzen Espezialitatea (Ie Business School Madrid).

Lanbide-esperientzia:

Zuzenbidean lizentziatua Deustuko Unibertsitatean (Bilbo). Bere lan-ibilbidea egitura-funtzen arloan hasi zen Londres eta Bruselako enpresa batzuetan, Europako Batzordeak emandako beka batekin.

Enpresa Institutuan (IE Business School, Madril) MBA amaitu ondoren, erakunde horretan sartu zen korporazio garapenerako atalean, proiektuen kudeatzaile gisa. Aholkularitzako proiektuen zuzendaria izan da hausnarketa estrategiko, berrikuntza eta pertsonen garapenaren arloan, batez ere, energia eta banka sektorean.

Jarduera horrekin batera, ekintzaileentzako aholkularitza-lana egin zuen negozio-proiektuen garapenean, Madrilgo Centro Iceved zentroan (International Center for Entrepreneurship & Ventures Development).

2007an Deloitte-n hasi zen lanean, lege konsultoretza, auditoria eta aholkularitza arloan mundu mailako enpresa nagusienetako batean. Estrategia eta operazioen *senior manager* gisa, bere esperientzia izan da, batez ere, aholkularitza estrategikoen eta bideragarritasun-planen proiektuak, antolakuntzaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak (egitura, neurriak, prozesuak, kostuak) eta eraginaren ebaluazio-ereduak. Nazioarte mailako esperientzia du praktika-komunitate hauetan: "Government Renewal and Reform", "Smart city Solutions" eta "Transport, Hospitality and Leisure".

Sektore publikoan esperientzia du Europa, estatu, autonomia, foru eta tokiko erakundeetarako garatutako aholkularitza-proiektuetan. 2015eko uztailan, Bizkaiko Foru Aldundiaren talde berrian sartu zen.

Euskara, gaztelania eta ingelesez hitz egiten eta idazten du.

ADMINISTRAZIOAREN MODERNIZAZIORAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Mikel Gaminde Aguirre

Bilbon jaio zen, 1984an.

Prestakuntza akademikoa:

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna eta Zuzendaritza Garapeneko masterra, Deustuko Unibertsitatea, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea - «La Comercial».

Lanbide-esperientzia:

Deloitte hasi zuen bere lanbide-karrera. Aholkularitza, auditoria eta lege-aholkularitza zerbitzuak ematen dituen enpresa ospetsuenetakoa da nazioarte mailan. Estrategia eta eragiketen arloko aholkulari gisa, berehala espezializatu zen sektore publikoan, eta, garai horretan, plangintza estrategikoaren proiektuak garatu zituen erakunde publiko eta pribatuentzat: politika publikoen diseinua eta ebaluazioa, lehiakortasun-planak, negozio-prozesuen eta antolaketa-ereduen analisia, besteak beste.

Gero, BEAZ SA sozietatean sartu zen, proiektuen kudeatzaile legez, eta korporazio-estrategiaren eta ekintzaitza sustatzeko eta enpresa berritzaileak sendotzeko aholkularitzaren arloko eginkizunak bete zituen.

2015Ean, Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernu-talde berrian sartu zen.

Euskaraz eta ingelesez hitz egin eta idazten du.

ENPRESAK SUSTATZEKO ETA EKONOMIA GARATZEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gorka Estebez Mendizabal

Bilbon jaio zen 1959ko urtarrilaren 27an.

Prestakuntza akademikoa

Ekonomia Zientzietan lizentziatua da, enpresa arloan (merkataritza espezialitatea)

Ibilbide profesionala

- * 1984/07/09tik 1985/01/31ra, administrazio kontratua Bizkaiko Foru Aldundian ekonomialari gisa.

Lan horretan ekonomialarien berezko zereginak egin ditu, batez ere, Ekonomiaren Sustapen eta Garapen Sailaren balantzeen analisiak.

- * 1985/02/01etik 1987/02/17ra, bitarteko funtzionarioa Bizkaiko Foru Aldundian; lanpostu horretan aurreko kontratuaren lan berdinak egin ditu.

- * 1987/02/17: IZENDAPENA KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA, ADMINISTRAZIO BEREZIAREN ESKALAN, GOI MAILAKO TEKNIKARIA; ESPEZIALITATEA: EKONOMIALARIA.

- * 1988/05/19: Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Orokorren Zerbitzura lekuz aldatzea.

Ekonomialari gisa lan egin du beti, eta bere eginkizunak, funtsean, sailaren gastua kontrolatzea eta sailaren aurrekontua egitea izan dira.

- * 1989/05/08: Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia Kudeaketaren Ataleko burua, bitarteko gisa.

- * 1990/04/04: aurreko ataleko burutza behin-behinekoa dela berrestea.

(1998ko abenduan jakinarazten da behin betikoa dela).

- * 1991/07/02: Bizkaiko Batzar Nagusien aholkulari ekonomikoaren postua esleitzea, zerbitzu-eginkizunetan.

Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako lana erakunde horretako arlo ekonomiko osoaren ingurukoa zen, esaterako, aurrekontuak, kontabilitatea, gastuaren kontrola, kontu-hartzailatza.... Horretaz gain, langileen kudeaketaren eta zerbitzu orokorren (mantentze lanak) ardura zuen, eta batzordeetan idazkari gisa parte hartzen zuen.

- * 1995/08/11: Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailera itzuli zen.

- * 1995/09/25etik 2000/04/03ra, Aurrekontuen Zerbitzuko burua, zerbitzu-eginkizunetan.

Lanpostu horretan eginkizun hauek izan zituen:

- a) Aurrekontu orokorrak eta ekonomia planak prestatzeko gidalerro ekonomiko eta teknikoak proposatzea.
- b) Foru administrazioko nahiz beste administrazio bateko organoan arteko koordinazioa, beren aurrekontuei dagokienez.
- c) Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko aurreproiektua egitea.

- d) Kreditu osagarrien proiektuak, kredituak gehitzeko proiektuak eta eskumenen transferentziaren ondoriozko kredituei baja emateko proiektuak egitea, eta gainerako aurrekontu aldaketetarako nahitaezkoak diren txostenak egitea.
- e) Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren kontrola eta jarraipena.
- f) Gastu-programen analisia eta ebaluazioa.
- g) Aurrekontuekin zuzenean lotutako argitalpenak prestatzea.
 - 2000ko apiriletik 2003ko uztailearen 1era, BFaren Ogasun eta Finantza Saileko AURREKONTUETARAKO ETA EKONOMIA KONTROLERAKO ZUZENDARIORDEA
Lanpostu horretan, Fiskalizazio Zerbitzua, Aurrekontuen Zerbitzua eta Auditoria Zerbitzua zuzendu, koordinatu eta planifikatzen dira.
 - 2003.07.01etik 2007ko uztailean, BFaren HERRI ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUEN ZUZENDARIA.
 - 2007ko uztailetik 2009ko uztailean, BFaren Herri Lan eta Garraio Saileko Errepideen zuzendari Nagusia.
 - 2009ko uztailetik 2015eko uztailean, BFaren Ekonomia Sustatzeko Saileko Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko zuzendari nagusia.
 - 2015eko uztailetik gaur egun arte, BFaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko zuzendari nagusia.

HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.

KANPO SUSTAPENERAKO ETA TURISMORAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Asier Alea Castaños

Muskizen (Bizkaia) jaio zen, 1972ko urriaren 12an. Ezkonduta dago eta seme bat eta alaba bat dauka.

Prestakuntza akademikoa

Lizentziatura bikoitza Ekonomian eta Nazioarteko Harremanetan (promozioaren graduatu nagusia eta Suma Cum Laude) Boston University-ko Ekonomia Fakultatean.

Prestakuntza osagarria

Politika ekonomikoari buruzko masterra, eta doktoregia Oxford University-n (moneta-eremu optimoei buruzko tesia) eta MBAn, Massachusetts Institute of University-n (MIT).

Ibilbide profesionala

Ez du esperientziarik sektore publikoan. Bere lan-ibilbide osoa aholkularitza estrategikoaren arloan garatu du, batez ere, industrien bat-egite eta eskuraketa arloan, telekomunikazioetan, erakunde aldeaniztunetan eta energiaren eremuan.

Bere ibilbide profesionala aholkulari elkartu gisa hasi zen, L.E.K. Consulting estrategia aholkularitza britainiarrean (Londres, Chicago eta Milan, 1999-2001).

Analista seniorra Telefónicaren korporazioko estrategia sailean (Madril, 2001-2003).

Analista NBEko Economic and Social Council-en (ECOSOC) (New York, 2004)

CEOren zuzendari laguntzailea Guascor taldean (Bilbo, 2005-2011)

Estatu Batuetako energia sektoreko Dresser-Rand nazioarteko enpresan (Houston eta Bilbo, 2011-15), energia berriztagarrien unitatean strategiako zuzendari gisa; geroago, korporazioaren estrategia eta garapen saileko zuzendaritza osoa hartu zuen bere gain, 2013ko otsailetik.

2015eko abuztuan Bizkaiko Foru Aldundiaren talde berrian sartu zen, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Kanpo Sustapenerako eta Turismorako zuzendari gisa.

Hizkuntzak

Gaztelaniaz, ingelesez, euskaraz eta italieraz hitz egin eta idazten du.

AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Jon Larrea Arrutia

Bilbon jaio zen, 1961ean.

Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna, Nafarroako Unibertsitatean (1985).

Prestakuntza osagarria: Laneko Medikuntzako espezialitatea, Osasun Publikoko masterra eta Lan Arriskuen Prebentzioko masterra (Segurtasunaren espezialitatea).

Lan-esperientzia:

Medikuntza orokorra eta larrialdietako medikuntza Osakidetzan, aldi desberdinetan.

Babes Zibileko irakaslea Euskal Herriko Polizia Ikastegian (1990-1992)

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko medikua (gaur egun, Segurtasun Saila), 1992tik 2015era.

Kargu publikoak:

Gorlizko Udaleko zinegotzia eta alkateordea (1987-1992)

Bizkaiko Batzar Nagusietako ahalduna (2003-2015).

Hizkuntzak: Gaztelania, euskara (HEOko 3.a) eta ingelesa (HEOko 4.a).

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Aitor Soloeta Eraso

Bilbon jaio zen, 1964an.

Prestakuntza akademikoa

Zuzenbidean lizentziatua (abokatu-ekonomialaria), DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN.

Enpresen Aholkularitza Juridikoko master bat egin du, Bartzelonako Cuatrecasas abokatu bulegoak emandakoa.

Lan-esperientzia:

- Cuatrecasas abokatu-bulegoaren aholkulari fiskala Bartzelona eta Bilboko bulegoetan, 5 urtez (1989tik 1994ra).
- Aralde aholkularitzaren aholkulari fiskala Bilboko bulegoan, 4 urtez (1994tik 1998ra).
- Bizkaiko Foru Aldundiko Zergen ikuskatzaileordea enplegatu publiko gisa, 6 urtez (1998tik 2004ra).
- Bizkaiko Batzar Nagusietako aholkulari ekonomikoa enplegatu publiko gisa, 3 urtez (2004tik 2007ra).
- Getxoko Udalaren Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Turismoko zinegotzia, kargu publiko gisa, 4 urtez (2007tik 2011ra).
- Bizkaiko Foru Aldundiko Zergen ikuskatzailea enplegatu publiko gisa, 6 urtez (2011tik 2014ra).
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ikuskapen Jardueren Zerbitzuko burua enplegatu publiko gisa, urte batez (2014tik 2015era).
- Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK) finantza-erakundearen Administrazio Kontseiluaren presidenteordea, urte batez (2013tik 2014ra).
- Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK) Fundazioaren Patronatuko kidea urte batez (2013tik 2014ra).

Euskaraz (3. HE) eta ingelesez (First Certificate) hitz egin eta idazten du.

OGASUN ETA FINANTZA SAILEKO KATASTROAREN ETA ZERBITZUEN ZUZENDARI NAGUSIA.

MAITE ASENSIO DE LA VILLA

Maite Asensio de la Villa Rio de Janeiron jaio zen, 1971n.

Prestakuntza akademikoa

Zuzenbidean lizentziaduna eta Ekonomian diplomaduna, Deustuko Unibertsitatean.

Ibilbide profesionala:

Bere lan-ibilbidea 1994an hasi zen, sektore pribatuan, FCC enpresan, hain zuzen ere. Enpresa horretako Administrazio Kontseiluan, giza baliabideen eta hornitzaileen kontroleko atalaren arduraduna izan zen. 2001eko azaroan, bere plazaz jabetu zen Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario legez, eta 2007ra arte, Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetzaren zergen aholkulari tekniko gisa lan egin zuen, eta horren ondoren, Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuko buru. 2011ko uztailetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusia da.

HIZKUNTZAK

Euskara: EGA

Ingelesa: Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila

FINANTZA, AURREKONTU ETA ONDAREAREN ZUZENDARI NAGUSIA

Aitor Cobo Presilla

Bilbon jaio zen, 1962an.

Prestakuntza akademikoa

Ekonomia edo Enpresa Zientzietan lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean, Ogasun eta Sektore Publikoaren espezialitatean.

Ibilbide profesionala:

Karrerako funtzionarioa;

1986tik 1998ra: Zerga agentea.

1998tik 1999ra: Zergen ikuskatzaileordea.

1999tik 2004ra: Ekonomia aholkularia Bizkaiko Batzar Nagusietan (zerbitzu eginkizunetan).

Kargu publikoa:

2004tik 2007ra: Finantza eta Aurrekontuen zuzendari Nagusia.

2007tik Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen zuzendari nagusia da.

FORU AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO PRESIDENTEA

Felix Ayarza Palma

Bilbon jaio zen, 1959an.

Prestakuntza akademikoa

Deustuko Unibertsitate Komertzialeko Ekonomi eta Enpresa Zientzietako lizentziatua.

Ibilbide profesionala:

1987-1989 urte bitartean, SEBASTIAN DE LA FUENTE kontsumo-produktuen banaketaren sektoreko enpresan egin zuen lan, administrazio-ataleko teknikari. Hain zuzen, kontabilitate- eta finantza-lanak egin zituen, eta, diruzaintzari dagokionez, finantza-erakundeekiko diruzaintza-negozioazioaren arduradun jardun zuen.

1990-1991 urte bitartean, goi-mailako teknikari aritu zen EUSKO JAURLARITZAN, Herrizaingo Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzari atxikita. Lanpostu horretan, diseinu-, garapen- eta kudeaketa-lanak egin zituen honako arlo hauetan: aurrekontuak, sailaren proiektuak, informazio-, ebaluazio- eta jarraipen-sistemak, ondare eta ekipamenduaren administrazioa eta kontserbazioa, barne-antolaketa, sailaren zerbitzuen zein lan-sistema eta -metodoen arrazionalizazioa eta informatizazioa, gainerako sailekiko koordinazioa eta sail arteko batzorde eta kontseiluetan parte hartzea, eta, azkenik, Ertzaintzari dagokion kupoak kalkulatu eta zehaztea.

1991-1995 urte bitartean, EUSKO JAURLARITZAKO Herrizaingo Sailari atxikitako Arkauteko Polizia Akademiako gerente aritu zen. Orduan, 2 milioi euro inguruko aurrekontu batekin eta 15 pertsona esleiturik zituela, ekonomia, ondare eta aurrekontuaren arloko kudeaketa-lanak egin zituen, bai eta zerbitzu orokorren nahiz giza baliabideen zuzendaritza-lanak ere.

1995-2003 urte bitartean, Ekonomia eta Plangintza Ekonomikoko zuzendari jardun zuen, EUSKO JAURLARITZAKO Ogasun eta Finantza Sailari atxikita. Orduan, 10 milioi euro inguruko aurrekontu batekin eta 30 pertsona esleiturik zituela, Jaurlaritzaren eta eskualdeko ekonomiarekin lotutako lanak egin zituen, hala nola: plangintza ekonomikoaren tresnen zein edukien definizioa; programa eta politika publikoen ebaluazioa; Euskal Sektore Publikoaren, herri administrazioen, eta atxikitako sektore publikoaren jardun ekonomiko eta finantzarioaren jarraipena eta azterketa; programazio ekonomikoaren doitzea; lurralde-antolamenduko tresnak prestatzea; EAEko ekonomiaren azterlan, txosten eta argitalpenak egitea (orokorrak edo sektorialak); ikerketa ekonomikorako metodoak eta EAEko ekonomiarako zein haren sektore eta/edo segmentuetarako modeloak garatzea; Jaurlaritzaren ezohiko neurri ekonomiko eta finantzarioen ikerketa eta azterketa; sailaren estatistika-produkzioarako proposamena eta garapena; Estatuak EAERI emandako eskualdeko laguntzen mapa; Europar Batasunaren esku hartzerako programa eta ekimenak prestatzea eta haien jarraipena eta kontrola egitea; Jaurlaritzari informazioa ematea Europako politika ekonomikoari buruz eta, bereziki, eskualdeko politikari buruz, eta, azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskualdeko barne-politikaren arloko programen definizioa (2. helburua, FEDER eta INTERREG Europar Batasuneko funtsak).

